



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Tubacex-ek epaia ez errespetatzea erabaki du, egoeraren konplize den Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin

Tubacexeko zuzendaritzak arduragabekieriaz erabaki du gatazka luzatzea, kaleratutako langileak lanera itzultzea onartu gabe utziz. Berrero ere, zuzendaritza honek harrokeri eta inpunitatez justifikaezina egiteko gai ikusten du bere burua, kasu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaiaren zentzua ez betetzea.

Tamalgarrria da eskualde oso batean eta langile guztiek ospatutako epai bat onartu eta bete nahi ez izatea. Tubacexeko zuzendaritzak ez du inolako eskrupulurik, eta gai da langatazka bat luzatzeko eratzukizunik ez hartzeagatik, nahiz eta aparteko kostuak bere gain hartu behar izan.

Enplegu Erregulazio Espedienteen baliogabetzeen berri izan ondoren, Tubacexeko langileekiko eta haien borrokarekiko, eskualde oso batekiko eta baita auzitegiekiko ere prestigio-galtze kanpaina bat bizi izan dugu. Prestigioa kentzeko kanpaina hori, patronalak antolatzeaz gain, hainbat komunikabidek babestu eta Eusko Jaurlaritzak berak ere parte hartu du. Haren konplize izan da azken hau.

Argi esan behar da erabaki hori ez zela hartuko Eusko Jaurlaritzaren babesik gabe, eta EAJ eta Urkullu lehendakaria horren erantzule zuzenak direla. Berrero ere, argi geratu da langileen eta eskualde baten interesen gainetik, patronalaren eta haren diru-gosearen alde daudela.

LABetik borrokarako konpromisoan berresten gara, kaleratutako pertsona guztiak beren lanpostuetara itzuli eta iragarritako errekurtsioa erretiratu arte. Helburu horiek lortzeko borroka eta mobilizazioa da Tubacexen enplegua eta Aiaraldean bizitza eta enplegu duinak defendatzeko berme bakarra.

Laudion, 2021eko uztailaren 13an